

**Hizkuntza-praktika ekologikoak:
ZER EGIN HAUR ETA GAZTEAK EUSKARAZ BIZITZEKO?**

IKASTAROAREN EGITARAUA:

1. EGUNA

- Kokapena: kezkak eta espektatibak
- Mundu jasangarria: mundutik etxera
 - Garapen eredu jasangarria
 - Eraldaketa soziala
- Hizkuntzak eta hiztunak: etxetik mundura
 - Hizkuntzak munduan ekologiaren begiradatik
 - Hizkuntza komunitateak, hiztunak eta elkarbizitza
 - Diagnostikoa eta eragin faktoreak
- Talde Dinamika: Diagnosirako gakoak
- ETXEAN LANTZEKO: “Etxeko diagnosia”

2. EGUNA

- Talde Dinamika: ETXERAKO ARIKETA I
- Eredu mentalak
- Identitate askeak (edo ez)
 - Hizkuntza
 - Identitate indibiduala eta kolektiboa
- Hizkuntza urraketak haurren munduan eta ondorioak
- Talde Dinamika: “Arbasoen bidaia”
- ETXEAN LANTZEKO: “Familiako memoria linguistikoa”

3. EGUNA

- Talde Dinamika: ETXERAKO ARIKETA II
- Hizkuntza erabileraren jabekuntza
 - Sozializazioa
 - Heziketa proaktiboa eta ikasketa prozesua
- Talde Dinamika:
 - Hizkuntza-praktika ekologikoen murala
 - Egunerokoan haur eta gazteekin ditugun egoeren lanketa (elkarrizketan trebatzen)
- Itxiera eta ondorioak

Hizkuntza-praktika ekologikoak: ZER EGIN HAUR ETA GAZTEAK EUSKARAZ BIZITZEKO?

Haur eta gazteei eragiten dieten egoeretarako hizkuntza-praktika ekologikoak identifikatu eta abiatzeko asmoz, KUTXA EKO GUNEA eta EMUN Aholkularitzaren artean ikastaro hau sortu dugu. Hurrek eta gazteek euskaraz bizitzeko aukera izan eta erabakia har dezaten nahi dugu. Horretarako, gurasook, irakasleok eta hezitzaileok izan ditzakegun esku-hartze eraginkorrak identifikatuko ditugu.

Hizkuntza-praktika ekologikoak ezagutzeko gutako bakoitzaren motibazioa, konpetentziak eta portaerak aztertzetik abiatuko gara eta, begirada ekologikoa aintzat hartuta, haurren hizkuntzen jabekuntzan zein sozializazioan jarriko dugu arreta.

HELBURUAK

- Norberaren kontzientzia eta praktika linguistikoak ezagutu eta seme-alaba eta ikasleengan nola eragiten duten hausnartzea.
- Munduko begiradatik, euskararen lurraldean haur eta gazteen hizkuntzekiko motibazio, ezagutza eta erabileran eragiten duten faktoreak ezagutzea.
- Haurren eta gazteen euskara erabileran positiboki eragiteko praktika ekologiko komunak identifikatzea eta ahalduntzea.

INFORMAZIO PRAKTIKOA ETA IZEN-EMATEA

Lekua: Kutxa Ekogunea Parkea (Donostia)

Hizkuntzak: EUS edo Elebitan. Hartzaileen hizkuntzaren arabera, bi hizkuntza erabili ahalko dira.

Egunak: 2017ko azaroaren 8, 15 eta 22 (asteazkenak)

Ordutegia: 17:00 - 20:00

Irakasleak: Itsaso Olaizola (KUTXA EKO GUNEA) eta Ainhoa Lasa (EMUN)

Izen-ematea: <http://erreserbak.ekogunea.eus/>